



Goruntz egin du astoen kopuruak eskualdean

SASOIEAN ▶ Gipuzkoan 1.000 asto inguru daudela kalkulatzen da; eskualdean, berriz 70 bat

ARRAZARI EUSTEA ▶ Astozaleen Elkarteak euskal astoa ez galtzeko helburuarekin ari da lanean ▶ 6-7



Astoa berreskuratzeko lan handia ari dira egiten. NEREA URBIZU



NEREA URBIZU

Jaialdi berezia haur sahararentzat

ADUNA ▶ Uda Gipuzkoan igarotzera etorri diren 86 saharar gaztetxok ederki igaro zuten euren udako gurasoekin atzoko festan ▶ 4

ABRAHAM OLANO ▶ TXIRRINDULARI OHIA

«Ea txirrindulariek eta zaleek buelta ematen diogun txirrindularitzari»

Frantziako Tourraz eta Espainiako Itzuliaz hitz egin du anoetarrak ▶ 3



HITZA

MUSTURINEA

#ARATEGIA

Festa zoriontsuak pasa!

Nagusia, 14 • Villabona
Tel.: 943 69 68 01

Preso eta iheslarien aldeko jantokia Villabonan jaietan

Berdura plazan

Uztailaren 24tik 31ra
20:00etatik 24:00etara

JESUSEN BIHOTZA IKASTOLA

Ikastolaren eskaintza

- Irakatsi
- Hezi
- Pertsona osatu

Ikastolak festa alaiak igaro ditzazuen opa dizue guztiei!

Gora Santioak!

UZTURRETIK ▶ XABIER TELLERIA

Oporren aparrean



txoia ate joka izango dugu: oporraldia. Eta aldea dago oporrak egiteko eta antolatzekeo maneran.

Bistan da oporrak ere kontsumo gai bihurtu direla. Esan nahi dut, oporretan nora edo hara nahita ez joan beharra. Agian ahaztuta, benetako atsedenerako tartea beharko lukeela, urte osoan zamatutako gainkargak arintzeko. Baina traza hartzen diot zenbait kasutan pilotutako arazoan irtenbide baina, ihesbide bihurtzen direla; eta itzulitokan mejora handiegirik gabe jarraitzen dutela aurretik utzitako zama haiek.

Planak egiteko garaian, abenturazaleago agertzen dira batzuk, nahiz eta abentura kutsu hori matizatu beharra dagoen: Bertakoentzat bizitzea bera abenturarik arriskutsuena duten lurraldeetara joan eta Urrezko Visa nahierara astinduz, goizetik gauera bi-tarteko guztia ondo programatuta, inizatiba bakarria eguerdiko Martini gorri edo zuriaren artean aukeratzea izanik.

Badira ere, ondoren gehiago disfrutatzeko dutenak oporretan baino. Gutxienekoa da momentu bakoitza gozatzea

eta ondo aprobetxatzea; ondorenerako detailerik txikiak ondo jasotzen jar-tzen dute ahalegina, dela argazkitan edo bideoan, afari baten aitzakiatan disfrutatutako gabeko momentuak erakusten bapo disfrutatzekeo.

Eta gutxiak, baina izan badira oporrak hartu nahi ez edo ezin dutenak ere. Nire urrutiko pariente hura bezala, entzun nahi zuten guztiari berak inoiz oporririk ez zuela egin harro esaten zuten hura. Amaierarik gabeko istorioetan bezala, beti zati bat esan gabe uzten bazuen ere, alegia, lanik ere, inoiz egitekoa zela.

Esandakoa: ahal duena, bihoa, eta onerako bedi.

Hemendik gutxira hartuko du me-rezitako atsedena eguneroko honek. Zuetako batzuk honez gero lanari utzita egongo zarete, eta beste batzuk, uzteko atarian. Urteari urtea erantsi ahal izateko beharrezko kol-

ASTEKO IRUDIA ▶



15 eskulturen 'Kantu isila', Tolosako hainbat txokotan

Erredakzioa ▶ Ostiralean inauraturatu zuten, Tolosan, *Kantu isila* izeneko aire libreko eskultura erakusketa. Koldobika Jauregi eskultore alkizarrak egindako lana da, Tolosaren 750. urteurrenerako. 15 piezez osatutako proiektua da, Markinako marmolez eta Lasturko grizez eginikoak. Eta herriko hainbat txokotan jarri ditu: Plaza Zaharra, Andre Maria plaza, Larramendi, San Frantzisko ibilbidea, Zabalarreta parkea (argazkian)... «Guztiekin ere Euskal Herriko folklorea, kirola eta filosofia dute erreferente, eta baita Tolosaren ibilbidea ere», dio Koldobika Jauregik. Haren iritziz, «behin eskulturak jarrita nire lana hemen amaitzen da; orain jendeak hauek ikustean sentitzen duenak du garrantzia». L. MONTES

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

ABRAHAM OLANO ▶ TXIRRINDULARI OHIA ETA ESPAINIAKO ITZULIKO ZUZENDARI TEKNIKOA

«Ea txirrindulariek eta zaleek buelta ematen diogun txirrindularitzaren munduari»

I. Garcia ▶ Opor-lekura bidean harrapatu dugu Abraham Olano (Anoeta, 1970). Tourraz, zuzendari tekniko den Espainiako Itzuliaz eta orokorrean txirrindularitzaz hitz egin dugu berarekin. Ostegunean egin genion elkarrizketa, Tourreko etapa amaitu eta gero, Floyd Landisek emandako erakustaldiaren ondoren. Olanorentzat estatubatuarra da faborito nagusia Tourra irabazteko. Asmatu ote du?

Gaurko [osteguneko] etapa jarraituko zenuen. Zer iruditu zaizu?

Pena bat izan da. Ez dituzte aukera guztiak galdu, baina bai dezente, Pereirok eta Sastrek. Egoera onean zeuden biak, baina orain, erlojuaren kontrako hor dagoela, aukera gehiago ditu Landisek.

Ez da aspaldian horrelako Tourrik ikusi.

Polita izaten ari da, mugitua, eta azkeneko erlojupeko arte lehenengo hirurentzat aukera asko daude. Aldaketak izan daitezke hiru postu horietan. Gero ikusi behar da podiuma zeinek osatzen duten, besteak ere ez baitaude hain urrutit.

Landisek txakaldia izan zuen egun batean eta gero sekulako erakustaldia eman du.

Askotan ikusi izan da egun batean txirrindulari batek ahulaldia izatea eta hurrengo egunean ondo ibiltzea. Landisek minutu asko galdu zituen eta aukera guztiak galduta zeuzkela, horiek berreskurateko modua lasterketa lehertzea zen. Saiatu egin da eta ondo atera zaio.

Zein da, beraz, zuretzako faboritua?

Niretzako Landis da. Tourra irabazteko, dagoen egoerarekin, bera da faboritua. Gainera gaurkoa [osteguneko] ikusita, nahiz eta besteak atzetik joan eta erreferentzia izatea garrantzitsua izan eta baita elastiko horia eramatea ere. Landisek erlojupeko oso onak eginak ditu eta niretzako bera da aukera gehien duena.



AITOR ELDUJAEN

TOURRA

«Landis da faboritua. Erlojupeko oso onak eginak ditu eta niretzak bera da aukera gehien duena»

Erlojupekoa luzea da, gainera.

Bai, horregatik. Denak dabilza oso justu, baina Landis, atzoko [asteazkeneko] etapa ezik, beste guztietan hor izan da.

Tourrak nahiko zeresana eman du bizikletak mugitzen hasi aurretik gertatu den iskanbilarekin.

Egoera zaila izan da txirrindularientzako. Hor daude epaileak eta hor daude lekukoak.

ESPAINIAKO ITZULIA

«Itzuli oso polita izango da. Helmugaratzeak ikusgarriak izango dira, baina ez agian tarte handiak markatzeko»

Ikusi behar azkenean zertan gelditzen den.

Kolpe handia txirrindularitzarentzat, ezta?

Kolpea denentzako da. Ez bakarrik zaleentzako, baita txirrindularientzako ere. Kiroletan munduarentzat orohar. Ikusi egin behar zertan gelditzen den. Badirudi hasieran eman zen istilua geldituta dagoela, edo gutxiago izango dela dirudi, behintzat.

TOLOSALDEA

«Txirrindulari famaturik ez dagoenean, badirudi txirrindulari gutxiago daudela; nik zikloturista asko ikusten ditut, baina»

Zuk zer ondorio ateratzen dituzu?

Txirrindularitzan azken urteetan nahiko zalaparta eta istilu dabil. Espero dugu txirrindularitza ez dela bukatuko horregatik behintzat, eta ea txirrindulariek eta zaleek buelta ematen diogun txirrindularitzako munduari.

Istilu hauekin guztiekin zaleek zein gizarteak orokorrean ezbaian jarri dituzte orain ar-

teko txapeldunek egindako lorpenak. Zer diozu horretaz?

Egoerari buelta emanez, ondorengo erreflexioa egingo nieke zaleei eta mundu guztiari: begiratu zer gertatu den aurtun Tourrean, zeintzuk dauden hor aurrean, eta jarri izeaizkiozu ez direnak joan eta Tourra berdina izango litzateke. Beraz, daudenekin, ez direnak joan kenduta, Tourra berdintsua da. Hau da, dopina dela edo ez dela, Tourra ez da asko aldatu.

Espainiako Itzulian zuzendari tekniko lanak egiten ari zara. Zer betebeharrak duzu, zehazki?

Ibilbideak begiratzea, liburuak prestatzea eta gero lehaketaren orduan dena txukun ateratzeko ardura izatea.

Nolako izango da Espainiako Itzulia?

Ikusi beharko da zer gertatzen den istilu guzti horrekin, zein den egoera UCI (Txirrindularitzako Nazioarteko Batasuna). Horretaz aparte, uste dut itzuli oso polita izango dela, ikusgarria. Aurreko urteetan bezala, ibilbideak kilometro gutxiagokoak izango dira. Helmugaratzeak ikusgarriak izango dira, baina ez agian tarte handiak markatzeko. Erlojupekoak ere motzagoak izango dira. Azkenengo momentura arte ikusleagoak ez dezala jakin zeinek duen aukera irabazteko.

Nola doaz prestaketa lanak?

Gauza guztiak lotuta daude, baina, badakizu, beti daude biribilguneak, obrak... eta horri guztiari jarraipena egin behar zaio.

Nola ikusten duzu Tolosaldeko txirrindularitza?

Ondo ikusten dut. Txirrindularitza badago, beti izan da eta espero dut horrela jarraitzea. Esan ohi da txirrindulari famatu bat ez dagoenean, txirrindulari gutxiago daudela diruduela, baina ateratzen naizen bakoitzean nik zikloturista asko ikusten ditut.

iragarki laburrak ▶

LAN HEZKUNTZA

Osakidetza. Lanpostuak betetzeko jendea behar da: zaindariak, administrari laguntzaileak, sukalde laguntzaileak, gidariak, laborategiko laguntzaileak. Berehalako deialdia: 943 313782.

Diputazioak. Diputazioak sukaldari laguntzaileak eta zaintzaileak behar ditu. 943 313782.

Laborategi teknikariak. Laborategi teknikariak diputaziorako plaza libreak. 943 313782.

Liburutegi laguntzaileak behar dira

zenbait udalbetetan. 943 313782.

Administrari laguntzaileak.

Anoeta, Beasain, Bergara, Sorulaze, Mutriku, Zizurkil, Mendaro...

udalebetan administrari laguntzaileak behar dira.

943 313782.

Peoiak, garbitzaileak, lorezainak behar dituzte. Bergaran, Hernanin eta Errenterian.

Informa zaituzte: 943 313782.

Haur zaintzaileak, hezitzaileak. Eskola publikoetarako plaza libreak.

943 313782.

Peoiak. Udalebetan postu fijoak betetzeko. 1200 euro/hileko. Arratsaldeak libre.

943 313782.

Gidariak. Plaza libreak betetzeko behar dira. Doaneko informazioa.

943 313782.

AZOKA ▶

Eguraldi atsegina nabaritu da azokan ere

Jendeak azokak eskaintzen zuen eskaintza zabala aprobetxatu zuen

PABLO ALBERDI

Atzoko Tolosako azoka animosoa izan zen. Eguraldiak lasaitasun puntua eskaini zuen, eta hori ere nabaritu zen jendearengan. Eskaintza aldetik, zerrenda zabala izan genuen mahaletan. Produktu batzuk, beroarengatik, pittin bat kaltetuta suertatu dira. Perretxiko zerrenda murriztu egin da kopuruan, eta lehenengo asteko freskotasuna ez zen izan.

Barazki zerrenda mantendu egin zen, baina, beroak eragin desberdina izan du produktuetan. Piparrak adibidez, berotasun puntua hartu du, tomatea ere gorritu da, eta lekak edo letxuak zertxobait bat gutxitu egin dira.

ATZOKO AZOKA ▶

Gaia	merk.	gares.
Berdura plaza		
Zintzilik potoa	2,40	6,00
Erromeroa	4,00	6,00

Bertako produktuak		
Erremolaba	1,50	2,00
Txikoria	1,00	1,25

Gaia		
Produktu ekologikoak		
Aza	2,50	3,00
Azukrea	3,35	-



ASTEASU: Guztiz eraberritua. Hormigoizkoa. Primerakoa. 35.500.000 pzta.
IRURA: Pisu ikusgarria. 125 m2 terrazarekin eta garajea. Urbanizazio pribatua eta frontoia. 54.000.000 pzta.
TOLOSA: 3 logela. Eraberritzeko. Hormigoizkoa.
VILLABONA: 2 logela. Kalitatezko materialekin. Berogailua eta igogailua. Bikaina. 44.000.000 pzta.
VILLABONA: 2 logela. Erdi eraberritua. 35.000.000 pzta.
VILLABONA: Apartamentua. Eraikuntza berrikoa, bikaina.
ZIZURKIL: Ertzeko etxe itsatsia lursailarekin. Aparta.

Errota 2 - Villabona
Olatzinmo@euskalnet.net
943 243 118 - 635 706 728

ADUNA ▶ GIZARTEA

Gipuzkoako haur saharar guztiak jai berezian izan dira

86 gaztetxok hartu zuten parte atzoko jaialdian antolatutako jolasetan

NEREA URBIZU

Adunako gurasoek Saharako gaztetxoentzat jaialdi berezia antolatu zuten atzokoan. Adun bertan. Duela 10 bat urte antolatzen duten festak Saharatik uda Gipuzkoako hainbat etxeetan igarotzera datozen haurrak biltzen ditu. Hala, goiz osoan, herriko plazan 86 sahararrek haien udako anai arrebeekin gozatu zuten, egun ahazteztina igaroz.

11:30ak aldera, han ziren denak, eta bizikleta ikuskizunaz gozatu zuten lehendabizi; abilezia «ikaragarria» erakutsi zuen bizikleta gainean neska gazte batek, eta hurrek ez zuten detailerik galdu. Ondoren, animaliak ikustera, eta haien gainean ibiltzera joan ziren, bazkaltzera joan aurretik. Xirimiria ez zen oztopoa izan; izan ere, bazirudien haurrek ez zu-

tela hori sumatzen. Ondoren, jokuak egin zituzten, baliabide ekonomiko gutxiarekin, baina umeek ederki asko igarotzeko modukoak, «ez baitute asko behar gozatzeko». Txokolatea beharrean, Kaikuk emandako esnekiak banatu zituzten haur eta parte-hartzaileen artean.

Laguntza, musutruk

Santa Ageda eskean lortutako dirua izan da egun hau antolatzeko erabili dutena, musutruk laguntza eman dutenez gain. Kaiku, Urbil-Eroski, Kixubi, DYA, Gorriti animaliekin, Udalak utzitako azpiegitura, barazkiak bazkarirako eman zituenak eta Maitane txirindulariak. Horiei guztiei, antolatzaileren aldetik «eskerrik beroenak».

Hurrengo urtean ere errepi-katzeko irrikitan izango dira.



Maitaneren saioarekin bundituta geratu ziren ikusleak. N. URBIZU



Ederki asko pasa zuten pony eta astoen gainean hurrek. N. URBIZU



Txerriboarekin ere jolas eta barre asko egin zuten. N. URBIZU

tolosaldeko eta leitzaldeko hitza

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn praktikak egin nahi?

Kazetaritza, Euskal Filologia eta Komunikazioan lizentziaturiko Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleei zuzendua

Urritik abendura aritzeko lanaldi erdiz

Curriculum-a bidali helbide hauetara, irailaren 13a baino lehen:
 Araba etorbidea, 5. atzea • 20400 TOLOSA
 tolosaldean@tolosaldekohitza.info

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Autoa. Opel Astra, 1.7 TD. 11 urtekoa. 1.800 euro. 607 47 48 26.

LANA

Zerbitzaria. Zerbitzaria behar da Tolosaldeko taberna baterako.

Lanegun osorako. 677 32 99 34.
Garbiketak. Bi neska eskaintzen dira orduka garbiketari aritzeko: etxebizitzak, tabernak, atariak,

lokalak... Eskarmentu handia. 657 71 96 17 edo 943 68 30 57.

Tabernaria. Neska euskalduna behar da lau orduz lan egiteko, Tolosaldean. Eskarmentatua. 635 74 52 91.

BESTERIK

Txakurkumeak. Artzai txakurkumeak opari. 948 50 44 81.

ASTOAK ▶



Urte bat umedun. Hurrengo udaberrirako beste astakume bat izango dute Altzoko etxalde honetan. Hogei urteko asto zuria ikusten diren beste bien ama da. N. URBIZU



Amaren aldamera. Kumea, nahiz eta jaio bezain laster jaikitzeko gai izan, lehenengo urtea amaren aldamenean egin behar du, bizitzan izango dituen beharrei eta oztipoei arinago aurre egin ahal izateko. Titia lehenengo bi hilabeteetan hartzen du. N. URBIZU



Asto arrazak nahasturik. Hiru belaunaldiak elkarrekin bizi dira. Asto arraza ezberdinak nahastu egin dira, eta askotan, gurasoen antzik ez dute kumeek. Kasu honetan, asto zuria alboan duen kumea berea da, eta baita ondokoa ere. N. U.

Zazpi astoren gainean

Arriskuan dagoen animalia bada ere, eskualdeko belaze eta belardietan ia arrunta bihurtzen ari den irudia da

NEREA URBIZU

Asto joan eta mando etorri, astoaren ahorako ez-tia ez da, baina bai belarra... Makina bat aldiz erabiltzen dugu astoa gure ahotan: kanta euskaldunetan ere ezaguna da animalia hau.

Ezaguna da ere, bestela, baina ez asko daudelako: ezer berzik gabe ere, astoa maitatua da jendearengatik, xarma berezia du, eta, azkenaldian, desagertzeaz eta arriskuan dagoen honengatik sentsibilitatea sortu, areagotu egin da.

Egun, gure eskualdean, soro

eta belazeetan gero eta arruntago bihurtzen ari den animalia dugu astoa, lanerako funtzioa galdu badu ere.

Eskualdean, baina, asto kopuru polita dagoela esan daitezke, nekazal gunea delako gehienbat, eta etxe inguruan izateko aukerak, honela, areagotu egiten direlako.

Astoa ekidoen familiakoa da, hatz bakarra baitute, eta apatz zabal bat gorputz-adar bakoitzean.

Mando basatiatik dator, Afrikatik. Orokorrean, zama eramateko erabiltzen zen. Irlandan asko daude, Espainiara

eramane ziztuztanean, Napoleonen garaiko gudetan zaldien-gatik aldatzen ziztuztelako.

Zaldiekin konparatuta txikiak dira, belarri luzeak eta zurda (kima) motzekoa da. Lotitasun ezberdineko kalparra izaten dute, zaldiek ez bezala.

Garai batean, astoak lanerako erabiltzen ziren, zama gainean eramateko, garraiolarako, eta nekazariei lana errazteko.

Gaur egungo teknologiaz medio, asko aldatu dira gauzak eta bizimodua, baita animalien zeregina eta betebeharrak ere: horregatik, astoaren funtzioa gurean ez da aurreko belau-

naldikoetako; izan ere, askok aitortu dutenez, «kapritxo» daukate etxean.

Beste batzuetan, ibilaldiak eta paseo ekologikoak egiteko erabiltzen dituzte. Harrigarria bada ere, sikikoki nahiz fisikoki ondo sentitzen ez diren pertsonentzat ere onuragarriak omen dira, jakitunen esanetan.

Astoa ezberdinak daude inguruan; aldeak daude mandoen artean, baina orokorrean, Euskal Herrian ikus daitezkeenak ez dira enkarterrikoak, hau da, bizkaitarrak. Dirudieenez, 45 bat ale daude Euskal Herrian. Beste guztiak *kanpotarrak* dira.

Dirudieenez, autoetako pegatinengatik aski ezaguna egiten ari den asto kataluniarra arraza desberdinekoa da: kalpar motzagoa dauka, muturra argiagoa, eta tamainaz txikixeagoa da: euskaldunaren antzekoena izan daiteke.

Beste arrazak hauek dira:

Mallorkakoa, kordobar-andaluziarra eta zamorar-leondarra.

Ugalketa

Maiatza eta ekaina dira astoak ugaltzeko hilabeterik emankorrenak. Gure eskualdean, hainbat astakume jaiotzen dira garai honetan. Aurten, zehazki 10 bat jaio dira. Astoak asko eza gutzen dituen arabera, «garai hau oso garrantzitsua da, honetan baitago animalia hauen iraupenaren gako».

Astoa estaltzea ez da erraza. Hori da arazoetako bat: asto arra asko gaiztotzen da, urduria da zelaiera ateratzen denean, eta loturik eraman behar da, «beti makila eskutan, bada ez bada ere». Hozka egiteko joera handia omen dute. Aste batez egoten dira arra eta emea belaze berean, eta zortea egon bada, asto emeak handik urte batera gutxi gorabehera ku-

Euskal astoaren ezaugarriak

Euskal astoaren ezaugarriak bereziak dira: berehala sumatzen da arraza hartakoa den ala ez. Tamaina txikikoa da, 1,20 metro inguru neurtzera iristen da. Burua txiki samarra dauka, eta belarriak proportzionalak, eta tente-tenteak.

Kolore aldetik, muturra zuria daukate, begi buelta bezala. Tripa azpia ere zuria daukate, eta gorputza marroi ilun-iluna. Batzuek ia beltzak dirudite. Kizkur samarra izaten dute, baina ez luzeegia ere. Isatxeko kalparra luzeska daukate, zaldiaren antzekoa, hain zuzen. Hanketako kaskoak txikiak dituzte, eta bakarra dute.

Asto arraren inguruan

Asto arra ikuiluan egoten da lotuta, «gaiztoa baita, berez». Emeekin agresiboa eta desatssegina izaten da, eta baita astakume arrekin, haiengan kompetentzia ikusten baitu. «Asto arra hiltzeko gai da. Arrisku tsua da: horregatik jendeak ez du eduki nahi».

«Gazteak direnean, jolasten bezala hasten dira hozka bezala egiten, heltzen, baina urtebete egin ondoren hasten dira arazoak, gero eta indar handiagorekin eusten baitu, eta mina egiten du». Atakatu egin behar duenean, belarriak atzeraka botatzen ditu, Joxe Inazio Mendizabalen esanetan.

Ikuiluan lotuta ere, bere buruari min egiten dio askotan, urduri jartzen delako: kanpoan emea badago, are gehiago. Hasiatik ohituz gero, ez da ho-

ELKARTEA ▶

Izena. Astozaleen elkarte.
Zeregina. Asto euskalduna mantentzea, arrazari eustea.
Zerbitzuak. Salmenta, informazioa, estalketak...
Telefonoa. 646 25 04 59.
Eremua. Gipuzkoa.

ren gaiztoa, eta emeekin ondo ibiltzen da, lasaiago. Askok urtea bete ondoren irendu egiten dituzte, eta hala emea balitz bezala da: lasaia eta motelagoa.

Beraz, astoen inguruan dauden esaera zaharrek badute egiazko alde bat. Asto arraz hitz egiten dute.

Astoa jolasteko

Asto karrerak ezagunak dira gure artean. Paseoak egiteko ere erabiltzen dituzte. Astoek ez omen dute honekin sufritzen, «100 kilo gainean erraz jasaten baitituzte». Umeak gainean ibiltzen dira leku askotan, haien gozagarri.

Lasterketak ere egiten dituzte, normalean festetan. Zizurkilan, Leitzan, Areson, Alegian, edota Berastegin arruntak dira. Bestalde, Lazkaoko *Astotxo Festa* ere berezia izaten da, bertan asto asko elkarrekin ikusteko aukera baitago. Modan dago haurrei oparitzea, merkea eta atsegina baita.

Edozein erataro ere, oraindik, Olentzerok berak ere, askotan menditik astoaren gainean jaistea nahiago izaten du, eta umeentzat, Olentzero bera bezain maitagarri bihurtzen da astoñoa.



Euskal astoa. Enkarterrietako astoa edo asto euskalduna txiki samarra da, 1,20 metrokoa batez beste. Begi ingurua eta muturra zuria dauzka, tripa azpia bezala. Kalpar marroi iluna dauka, eta buztana iletsua. Burua txikia du, eta belarriak buruarekin proportzionatuak. N. U.



Karrerak. Asto karrerak ere arruntak dira gure herrietan. Beste askotan, haren gainean ibiltzeko paseotxoak egin daitezke. JULEN GOIKOETXEA



Asto arra. Asto arra berez gaiztoa da. Horregatik, ez da arrunta belardietan ikustea: ia beti ikuiluan egoten da, aztoratzean askotan bere buruari min eginez. N. U.

JOXE INAZIO MENDIZABAL ▶ ASTOZALEEN ELKARTEKO KIDEA

«Gure helburua euskal astoa ez galtzea da, arrazari eustea, alegia»

Amasako Joxe Inazio Mendizabalek astozaleen elkarte sortzeko pausoak eman ditu. 41 urtekoa bada ere, txikitan eskolara Montteke astoaren gainean joaten zenetakoa da.

Nolatan sortu zen Astozaleen Elkarteak?

Lazkaon, *Astotxo Festa* antolatzen zuten, urtarrilaren 6aren ondorengo igandean. Gure lurraldean, astozaletasuna beti egon da, eta Jon Mikel Muruak, Nekazal diputatuak, hain zuzen ere, elkarte bat osatzeko proposamena egin zigun. Horrela hasi zen. Gaur egun, 15 kide gaude.

Zein da elkartearen helburua?

Berez, helburua euskal astoa ez galtzea da, arrazari eustea. Orain Lazkaon asto arrak izateko ikuilu bat egin nahi dugu: Diputazioak onartu egin du, baina diru asko behar da horretarako, eta ez daukagu.

Zer eskaintzen du elkarteak?

Asto karrerak, astoen arteko estalketak, informazioa... mota askotako laguntzak. Saldu ere, saltzen ditugu. ◀

Zenbat euskal asto daude Gipuzkoan?

46 bat. Arraza ezberdinetako 1.000 asto inguru kalkulatzan



N. U.

da daudela. Eskualde mailan, aldiz, 70 bat asto egongo dira, baina euskal arrazakoak, oso gutxi. Neronek, batzuk badi-tut, baina asko nahasketekin. **Garestia al da astoa edukitzea?**

Euskal asto emeak txikia de-

nean 400 bat euro balio ditu, eta arrak 120 euro inguru. Ez da garestia, eta elikadura aldetik belarrarekin ia nahikoa du. Albeitariarenera pare bat aldiz eraman behar da urtean, parasitoak kentzeko. Ez du lan handirik ematen. ◀

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Zorion agurrak. Egunkarian ezezik, gure webgunean ere ikusgai daude zorion agurren argazkiak. Sar zaitez *Agurrak* atalean eta egunero eguneko urtebetetzeen nahiz urteurrenen argazkiak ikusi ahal izango dituzu.



ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2006ko uztailaren 23a, igandea ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA



goizez



arratsaldez



beroena

25

hotzena

21

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
 (zalantzak argitzeko, harpidetan egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Altzo. Zikiri jatea egingo dute hilaren 28an, frontoian. Txartelak salgai Arandia jatekian, 18 eurotan.
Bidegoian. Suak kaltetutako Eztiola baserrikoei laguntzeko jaialdia antolatuko dute hilaren 29an: herri kirolak, bertsolariak, afaria... Afarira joateko txartelak salgai.
Tolosa. Udaberri dantzari taldeak 2006-07rako umeentzako dantza ikastaroak antolatuko ditu. Izen-ematea, Igarondo igerilekuaren ondoan, 17:00etik 20:00etara.
Tolosa. Irailaren 16an egingo den Euskal Herriko III. Graffiti Lehiaketan izen-ematea. Topagunea Euskara Elkartearen Federazioan (Arlozabal 8 bis, I.C. 48220 Abadiño-Bizkaia).
Villabona. Santio Krosa, hilaren 25ean. Benjaminetatik beteranoak bitarte. Izen-ematea, Zumbeltzen edo irteeran.

ERAKUSKETAK

Alegia. Miren Ortegaren margolanak. Hilabete osoan, Jubilatuen tabernan.
Hernalde. Gregorio Lopezen lanak, Ostatuan.
Tolosa. Jesus Lopez Zulueta margolanak, Saikin tabernan.
Tolosa. Iñaki Epelde, Jose Luis Longaron eta Carmen Mateo tolosarren margolanak, Errotan.
Zizurkil. Eskultura erakusketak, Olentzon.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Tolosa. Etxebeste, J. M. Gernikako arbola, 3. 943 65 10 40.
Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.

Bihar
Tolosa. Santa Maria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.
Leitza. Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta irizien erantzukizunik.

MAITE JANARIDENDA
 Ondo pasa jaiztan!
 kale nagusia, 11
 Villabona
 Tel.: 943691822



Jaurtiketa eta jaurtiketa artean, barreak

TOLOSA ▶ Bonbereneak atzo antolatutako I. Futbito Txapelketa arrakastatsua izan zen. Bi multzotan banatu zituzten zortzi taldetxoak, egun osoan zehar jokatu. Bonberenea, Oargi, Frikis, Zato Boys, Errekalde, Txoko Txiki, Txoki Txiki II eta Sanblaspeko taldeak aritu ziren elkarren aurka jolasten, norgehiagoka bakoitzak 30 minutu-

ko iraupena izan zuelarik. Ikusle batzuk ere izan ziren itzalpean jokalariek animatzen, hauek izerdia botatzen zuten bitartean. Batzuk besteek baino hobeto jokatu zuten, ohi bezala, eta emaitza-aren batek edo beste atentzioa deitu zuen: Zato Boys-ek 2, Oargik 9, esaterako. Giroa, behintzat, bikaina izan zen atzokoan, egun osoan zehar. N. U.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Aitzol Zubeldia (Lizartza).
 14 urte. Bere anaiak, aita, ama eta aitona amonen partetik, zorionak!

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker.

hitza
 agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

MIKEL HARTEGIA
 Arroa 12 behe • VILLABONA • Tel.: 943 67 12 23

EUSKAL JAIA BILLABONA 2006
 Uztailak 29 Larunbata
 16:30etan Sagardo dantzetan jaiaren inaugurazioa
 19:00etan ERROMERA
 Astiazaran Aniak & Juan Mari Beltran
 21:00etan Alari herriko plazan: **Zikiri Jaua**
 22:00etan ERROMERA, Taper eta Leturia
 Garaiko euskal jantziekin parte hartzera animatzen zaiteztegu
 Zikiri jaiari txartelak salgai ondoko lekuetan (20€)

Pasatzen den egun bakoitzeko, errepikatuko ez den eskaintza bat

Salou	350€
Benidorm	350€
Tenerife	509€
Mallorca	491€
PortAventura	220€
Gran Canaria	880€

Eta gainera:

EROSKI bidaiak
 merzei daztu



HITZA

ASTEBETEZ GOZATZEKO PREST

Santio jaiak ate joka dira dagoeneko eta bihar, errokilaren igogerarekin, egingo du eztanda jai giroak; astebetetz kirolak, musika, bazkari-afariak eta bestelako ekitaldiak izango dira



AMASA
Okindegia-Kafetegia

K/Berria • Villabona • 943 69 38 31



943 693 421
629 349 624

Etxe-ondo, 7
20150 BILLABONA



Jai zoriontsuak opa dizkizue
billabonatar guztiei!

MAPFRE
ASEGURANDS SU CALIDAD DE VIDA

berria, 15 • Villabona
Telf.:943 69 22 19

ERLOJUDENDA - BITXITEGIA



**ONDO PASA
JAJETAN!**

Tel.: 943 69 13 90
Nagusia, 26 • Villabona

HAMAIKA GOZATZEKO JAIOK

Egitarau zabal antolatuta dute astebeterako Villabonan; hala, adin guztietakoek non-nahi izango dute festa giroarekin gozatzeko parada eta etzi ospatuko dute Santio Egun handia

Urtebete berandua du berri ere etanda egingo du jaiak, bihurtik aurrera. Etxe Santio Egun handia izango dute eta zaindariaren omenez astebete-ko festa antolatuta dute Villabonan. Hala, datosen egunotan izango dute ekitaldi-antzerkin gozatzeko aukera. Musika, umeentzako jolasak, gazteentzako ekitaldiak, bazkari-afariak... denarik, denentzat. Hona, egunen egutza. Santio Jaietako egitaraua zehaztuta:



Oinkarren Oroitzuz emanaldia, izakio Santio jaietan. 2006ko azaroa

BIHAR
12:00. Karpai errepika eta Jaen haserako bupinazoa Lubaki batukada taldeak alaituta. Eroskilaren iguera Onddo gazte asanbladaren eskutik.
12:30. Erraldi eta buruhandien itiera Villabonako Loatzo Musika Eskolako taldeak alaituta.
14:00. Bazkari herrikoia Lubaki batukada taldeak alaituta.
17:00. Popoko, Mikoko eta Korpanaren zirkua haur jaietako plazan.
18:00. Pilota partidak

Behar-Zana elkarteak antolatuta; pala eta eskuzko afariantzu mailako finalak.
22:30. Eneargi ahotz nahasko abesbatzen kontzertua, Gurea aretoan.

23:00. Dantziak plazan, Nekin taldearekin.
ETZI, ASTERTEA
08:00. Diana Tolosako dultzaineroekin.

10:30. Herri kroza Zurbeltz elkarteak antolatuta (alebinak eta benjaminak), Txerminen. Ondoren, herri kroza. Zurbeltz elkarteak antolatuta (gaitortzeko kategoriak), leku berean.
11:00. Dantzari Txikien kalejira auzoz auzo.
12:00. Meza Nagusia Bandaren kontzertua Txistularien plazan.
13:00. Debaiko Musika Bandaren kontzertua Txistularien plazan.
13:00. Udak korporazioak urteroko bisita Santiago egitarau.
19:00. Soka dantza plazan, Villabonako Oinkari dantza taldearen eskutik.
20:00-22:00. Dantziak-erromeria Zrika taldearekin, plazan.
23:00. Rock kontzertua Zea Mays taldearekin, plazan.

OSTEGUNA 27
11:00. Sukamuturra haurrentzat, plazan.
17:00. Haur birrundularitza jaietako plazan, Irimtzi elkarteak antolatuta.
23:00. Rock kontzertua Zea Mays taldearekin, plazan.

dultzaineroen eskutik.
10:00. Erraldi eta buruhandien itiera Villabonako Loatzo Musika Eskolako trikitilarekin.
11:00. Haur Jaietako Auzokale taldearekin, Txistularien plazan.
16:00. Mus Txapelketa herrikoia Berdura plazan.
18:00. Sketxoak haur jaietako Auzokale taldearekin, Txistularien plazan. Ondoren, Eneargi hitz abesbatzen kantaldiak leku berean.
18:00. Joko Garbi pilota partida Iparaldeko taldeekin, plazan.
19:00. Futbito Txapelketaren finalak, plazan.
23:00. 52 plaza eztegi giroa probak, herriko bi taldeekin.

OSTIRALA 28: KOADRILEN EGUNA
10:30. Erraldi eta buruhandien itiera Tolosako dultzaineroekin alaituta.
12:00. Inoien Irraldeak haur jaietako Pupun eta Pabinen eskutik, plazan.
14:30. Koadrilen bazkaria Etxe-Ondon. Ondoren, kalejira leiztaldearen sarangarekin.
20:00. Erromeria plazan Ebabe anaiek taldearekin.
23:30. Erromeria plazan, Ebabe anaiek taldearekin.

LARUNBATA 29: JUBILATUEN EGUNA
09:00. Plater tiraketan Onddon, Loatzo tiro elkartearen eskutik.
10:00. Sukamuturra haurrentzat plazan.

11:00. Erraldi eta buruhandien itiera Tolosako dultzaineroekin alaituta.
11:00. Eskularen erakusketak Berdura plazan.
12:00. Meza Nagusia parrokian.
12:00. Bolaluma haur jaietako Koka taldearekin, Txistularien plazan.
14:00. Bazkaria Txermingo ikastolan.
17:00. Emakumen parte-hartzea sustatzeko herri jaietako.
18:30-00:00. Euskal Jaiaren antzerki osoan zehar: 18:30ean, sagardo eta pinbo dantaketa plazan; 19:00etan, erromeria Astiazaran anaiek eta Juan Mari Beltraneekin plazan; 21:00etan, afari herrikoia zirkui jaietako plazan; eta 00:00etan, erromeria Tapia eta Leturarenekin.

IGANDEA 30
10:30. Erraldi eta buruhandien itiera Tolosako dultzaineroekin alaituta.
11:30. Haur jolas parkea (buzbu trenea, kars, puzgarniak, ludoteka...), Txistularien plazan.
12:00. Santio Saria Batel Txapelketa.
17:30. Haurrentzako jolas parkea (buzbu trenea, kars, puzgarniak, ludoteka...), Txistularien plazan.
20:00. Dantziak herriko plazan, Gaubela taldearen eskutik.
22:30. Bertoliarak Arnaan; Suzaina Koina, Altar Mendizue; Amaia Agne eta Estibit Izagurre; gaitortzearen lanetan Ion Zaldúa arno da.

00:00. Dantziak plazan Gaubela taldearekin.
ASTELEHENA 31
09:00. Diana kalejira Tolosako dultzaineroekin.
10:30. Erraldi eta buruhandien itiera Tolosako dultzaineroekin alaituta.
11:30. Sorginkeria mundua haur jaietako Txistularien plazan.
14:30. Pilotarekin bazkaria Arantzabini.
18:00. Herri kirolean erakusketak: hantzi-erakusketak, zirkolarak eta trontzalariak. Ondoren, abere proba: behorren eta aizen antzerki lehia.
23:30. Carboni ikuskizuna Markeliren taldearen eskutik. Erroksilaren erakusketak Txalungu Berbe taldearekin.
00:00. Irteera Txermingo ikastolan.
00:30. Txalungu Berbe taldearen emanaldia.

Koadrilen topaleku

Ostiralean, Etxe-Ondon, herriko koadrilek bazkaria egingo dute eta gaua partera arte luzatuko dute jai



Koadrilen bazkariak jende andana biltzen du urtero. irvta

Gogotsu itxaroten dute eguna herriko koadrilek eta urte urte gero eta jende gehiago biltzea lor-

raipatu du. «Iaz 900 lagun inguru edartu ziren bertan, eta Villabonan 5.000 buruak dituela aintzat hartuz oso datu deigarria da». Egunaldiak izangoz badiu, Etxe-Ondon atzotzen dute bazkariak gurea. «Zelaia oso polina da, eta oso giro jaitorra sortzen da bertan. Izan ere, festetako egunik garrantzitsuenetakoak bilakatu da».

Udaiak zargiagutzat hartzen duela azaldu du Vitoriak. Hau da, mahaiaik, aukiak eta edariak freskateko ontziak. Jantzia eta edaria, berri, koadrilen esku urten dute. «Adin guztietakoak hartzen dute parte». Behin amaituta, txaragarekin jaltziera egiten da eta herria zeharkatzen dute. «Beste herrietan ez bezala koadrila guztiek jarraitzen diote txaragari».

Aurten, bigarrenez, behin kalejira bukatuta, guztiek plazara abiatatu eta han elkarrekin egingo dira. «Iaz behin bildu ginenen Etxeabe anaien emanaldia izan zen, eta izandako arrakasta dela eta, aurten errepikatuko egingo dute. ◀

Begoni
Ere guztietako konponketak: larru, chido...
Kortinak eta kojinek ere josten ditugu
Kale Nagusia 43 • BILLABONA • Tel.: 943 69 36 12

EKO-TOLOSA
FRUTATEGIAK
www.ekotolosa.com
Tel.: 943 69 30 47 • Nagusia, 3 • Villabona

LARREA
Okindegia
LARREA auzoa, 8A • Tel.: 943 69 11 05 • BILLABONA

EIZMENDI
FRUTATEGIA • KIROLDENDA
• Kirol goiak konpontzeko lantegia
• Aukera handia eskopeta eta karfutokotan
ONDO PASA JAIEGAN!
Berrio, 19 • Billabona • Tel.: 943 69 26 23 • Fax: 943 69 30 44

OKINDEGIA
Ernioeba 8 • Tel.: 943 69 33 75
20150 Billabona

ABURUZA Frakuntzak, S.A.
Kale Berrio, 40 berrio • Tel.: 943 69 07 07 • Fax: 943 69 06 02 • 20150 BILLABONA

Aranburu ARDOTEGIA
ARDOAK • SAGARDOA • KONTSERBAK • LIKOREAK, etab.
Etxerainoko Zerbitzua
Jai zoriontsuetatik opa dizkizuetatik!
Santio kalea, 4
VILLABONA • Tel.: 943 69 13 24

Urte guztien punta puntako merkat prezio ordain!
Eta orain merkatagailu!!!
muskarina
STON K
• Kambotak 3€, 6€ eta 10€
• Galtzak 10€ eta 25€
Festak ondo pasat!
Seriografia lanek egiten ditugu
k/Berrio 68 • Villabona • 943 69 30 41

GOIATZ MARGOAK OKORORREAN
- INDUSTRIALA - FATXADAK -
- FATXADAK ERABERRITZEKO - HARRIA GARBITZEKO...
Errota kalea, 6 • 2.izk • BILLABONA
Tel.: 943 69 31 01 • Fax: 943 69 01 01 • 609 14 37 13

Villabonako jaietan ere zuekin!
IRV ALDETTA EDERTEGIA
Berrio, 15 943 69 09 41
Berrio, 26
943 69 31 54
Berrio, 1

943 69 40 01
Ernioeba, 19
VIKER

AMASA-VILLABONAKO UDALA
Herriar guztiei jai zoriontsuak opa dizkie.
Errota plaza 29 • VILLABONA • Tel.: 943 69 21 00 / Fax: 943 69 33 76
emaia: villabona@uztegi.gipuzkoa.net

ALAZNE GURRUTXAGA ▶ OINKARI DANTZA TALDEKO KIDEA

«Hainbat ekitaldi bateratuz, egitarau indartsua osatu dugu»

Dantza eta euskal giroa uztartuko dituzte lehendabiziko aldiz hilaren 29an, herriko hainbat erakundek antolatutako Euskal Jaian

Aurten lehendabiziko aldiz, hilaren 29an, Euskal Jaia ospatuko dute Villabonan, Santio jaien barruan. Alazne Gurrutxaga (Amasa, 1982) eta Oinkari dantza taldeko beste partaideek egun honetarako dena atontzen dihardute, eta ahalik eta jende gehien biltzea espero dute. Honekin batera, herritar guztiak animatu nahi dituzte egun honetan baserritar jantzi agertzeko.

Nondik sortu zen erromeria egiteko egitasmo hau?

Oinkarik urtero bere emanaldi berria Villabonako festetan aurkezten du. Eta iazko urtekoak, Oroituz-ek, lan dezente suposatu zigan; horregatik, erabaki genuen uda arte luzatzea. Beraz, aurten ezin genuen santioetarako emanaldirik prestatu. Hala, hasiera batean konpartsa bat egitea pentsatu genuen. Izan ere, lehen, garai

batean egiten zen, baina honek lan handia suposatzen zuen, eta lehen ere badugu nahikoa. Azkenean, hemendik eta handik ideiak hartuz, erromeria antolatzea erabaki genuen. Pixka bat fandangoa eta arinarina hartuz, ezer serioa izan gabe, jendea anima dadin plazako dantzak egitera nahi dugu.

Euskal Jaian hainbat ekitaldi uztartu dituzue...

Idea horrekin batera-eta urtero egiten da sagardo dastaketa, eta hau ere larunbatera pasatu dugu. Bestalde, baita egiten da txekor pintxoan banaketa ere, eta azkenean, hau ere moldatuz, herri afaria antolatu da, zikiroarekin. Euskal giroa eta erromeria bildu ditugu. Orain arte egiten ziren hainbat ekitaldi egun batean batuz, azkenean egitarau indartsua osatu dugu.



E. EZEIZA

HELBURUA

«Herritarren gehiengoak bildu nahian, herriko jendeak osatzen dituen elkarte ezberdinak batu nahi izan ditugu»

APUSTU NAGUSIA

«Lan gehien ematen ari zaigun ekitaldia zikiro afariarena da, eta jende gehien bertara bilduko dela uste dugu»

ZIKIRO AFARIA ▶

Txartelak, 20 eurotan, gaur arte egongo dira salgai:

- ▶ Amasa okindegia.
- ▶ Kixubi okindegia.
- ▶ Larrea okindegia.
- ▶ Labezain okindegia.
- ▶ Ogi Goxo okindegia.
- ▶ Shepherds garagardotegia.
- ▶ Iturrigoxo jatebexa.
- ▶ Garmendia harategia.
- ▶ Arnasa.
- ▶ Iru-aldeta.
- ▶ Maxola.
- ▶ Joe.
- ▶ Itzalpe.

Zein izango da eguneko ekitaldi nagusia?

Lan gehiena ematen ari zaiguna zikiro afariarena da. Lehen txekor pintxoak ematen zituzten, eta aurten erabaki dugu afaria egitea. Beraz, lehenengo hiru plater izango dira, eta gero zikiroa. Eta txartelak salgai egongo dira hilaren 23a arte [gaur].

Nondik sortu zen erromeria egiteko asmo hau?

Alde batetik, herriko elkarte ezberdinak lotzea lortu nahi zen. Herriko elkarte desberdinak herriko jende ezberdina lotzen baitu. Eta, bestetik, egunean bertan, ahal den jende gehiena biltzea. Bestalde, egunak berak badu lelo bat, *Ekin dantzari, eutsi euskarari*, eta hori da azken batean helburua. Erromeria esatean, dantza dago, bai, baina Euskal Herrian. Euskal Herria eta dantza hartuta.

Bi erromeri mota dituzue...

Bai, alde batetik, Astiazaran anaiek betiko trikitixa jotzen dute, arin-arin eta fandangoekin. Bestetik, Tapia eta Leturiak pertsona bat jartzen dute jendeari dantzan irakasteko.

Euskal dantzak indartzen ari direla esango al zenuke?

Posible da, nik uste baietz. Baina horretarako urte hauetan jende askok lan egin du dantza taldeak indartzeko, eta aurrera jarraitzeko. Orain, berriz, nik uste, une politean dagoela. Esaterako, Oinkarin guraso talde batek izena eman zuen iraillean fandangoa eta arin-arin ikastaroetan. Hasiera batean abenduan bukatzekoak baziren ere, horren gustora daude non oraindik jarraitzen duten. Eta egun hau berezia izango da haientzat.

Nahikide KIO

Tel.: 943 69 64 84
Faxa: 943 69 33 59
Larrea auzoa, 8
20150 BILLABONA

Gora Santioak!

CLAUDIO HARATEGIA

Kale Berria, 60
VILLABONA
Tel.: 943 69 29 45
Etxekoa: 943 69 06 71

Festa zoriontsuak opa dizkizue!

JANARIDENDA PILAR

Larrea, 9 • Villabona
Tel.: 675 713637

MIGUEL-MARU FRUTATEGIA

Ondo pasa jaiak!

Kale Berria, 13 • BILLABONA
943 69 21 50

AMAIUR

lurnak
bitxetegia
erropa
osagaiak
dekorazioa

Kale Nagusia, 29 • Amasa-Billabona
943 69 16 11

BRONTXILLO

Harategia Arraindegia
Tel.: 943696823
Santio, 4
Villabona

Gora Santio Jaiak!

Itzalpe

Edaritegia Jatebexa

Festak ondo pasa!

Berria, 29 • Billabona • Tel. 943 69 06 23

Nagusia, 2 • Billabona

Tel.: 943 69 31 31
faxa: 943 69 31 31

FOTO NAJARA

Zure errebelatua ordu 1ean
Errebelatu digitala
Estudioko argazkiak

Kale Nagusia, 9
Villabona
Tel. 943696823

Talleres **denona** S.L.

ondo pasa jaietan!

Madrid-Irun errep. 444. km • Billabona
Tel.: 943 69 13 39 / Faxa: 943 69 41 59